

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko urriaren 2ko erabakia, Tokiko Gobernu Batzarraren esku- menak Raimundo Ruiz de Escudero Ezcurra zinegotziari eskuordetzeari buruzkoa

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127. artikuluan hainbat eskumen aitortzen zaizkio Tokiko Gobernu Batzarrari, eta horietako batzuk Tokiko Gobernu Batzarreko kideei eskuordetu ahal izango dizkiela xedatzen.

Alkate lehendakariak, Udalaren egitura organikoa aintzat hartuz, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehen xedapena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Raimundo Ruiz de Escudero Ezcurra zinegotziari eskuordetzea Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko eta Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saileko zeregin hauek, alkatearen esku geratuko diren zuzendaritza goren eta ikuskapena gorabehera:

a) Lizentziak ematea.

b) 80.000,00 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obren kontratazioa eta 100.000,00 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten hornidura eta zerbitzu-kontratuak, kontratu pribatuak eta administrazio-kontratu bereziak.

Zerbitzu-emakiden eta obra-emakiden arloko kontratazioa Tokiko Gobernu Batzarrarentzat erreserbatuta geratzen da.

c) Aurreko b) letran azaldutako gastuen betebeharrak baimentzea, erabiltzea eta aitortzea.

d) Tokiko Gobernu Batzarrak obren, zerbitzuen, hornikuntzen, eta bestelako administrazio-kontratuen gaineko kontratazioak esleitu ondoren, horiek gauzatzearen ondorio diren obra-egiaztagiriak (azken egiaztagiria barne), fakturak eta beste onestea, kontratu bakoitzeko edukiaren osotasuna edo zati bat izanda ere.

e) Zigortzeko ahalmenaz baliatzea.

f) Ehorzte-eskubideak ematearen inguruko zereginak, baita horiek atzera itzultzearen eta uko egitearen ingurukoak ere.

Azken xedapena. Dataren egunean jarriko da indarrean erabaki hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 1ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE